

BILBOKO UDAL ALONDEGIA
ALHÓNDIGA MUNICIPAL DE BILBAO



(Santi Yaniz)

Bizkaia
Bilbao
Indautxu

Joaquín Cárcamo Martínez

Mendearen hasieran, Iturribide kaleko udal alondegia zaharra, Bilboko zazpi kaleetan dagoena, txiki gelditu zen hiribilduaren beharretarako, eta ugarituz joan ziren kontrolik gabeko biltegiak. Herritarren higieinarekin eta osasunarekin lotutako herri horniduraren beharrei gure garaiko erantzuna emateko kezka sortu zenean, Ricardo Bastida Bilbao (Bilbo, 1.879-Bilbo, 1953) arkitekto gaztea Bilbora itzuli zen. Izan ere, ikasketak amaitu eta hiru urte igaro ondoren, udalean Severino de Achúcarroren laguntzaile eta merezidun gisa lanean ari zen bitartean, alondegia berriko eraikinaren eta bi ikuztegiren udal proiektuak egiteko enkargua jaso zuen.

Bastida mandatarari ibili zen Europako hainbat hiritan, Bruselan, Bremenen, Anberesen edo Hanburgon esaterako, antzeko ekipamenduen inguruko aurrerapean berrienak bertatik bertara ezagutzeko. Eta herritarren ongizaterako jarduerak, ekipoak eta makineria baliagarriak hartzeko arkitekturen funtzionamenduari buruzko ikuspegi erreal eta zuzen horrek nabarmen markatu zuen arkitektoa, bere lan publiko guztietan agerian geldituko denez. Arkitektura hori egoitzen eta fabriken bitarteko estilo bati dagokio.

A comienzos del pasado siglo la vieja Alhóndiga Municipal de la calle Iturribide, en pleno casco viejo bilbaíno, se había quedado pequeña para las necesidades de la villa y proliferaban los depósitos proclives al descontrol. La preocupación por dar una respuesta contemporánea a las necesidades de equipamientos públicos relacionados con la higiene y sanidad de la población coincide con el regreso a Bilbao del joven arquitecto Ricardo Bastida y Bilbao (Bilbao, 1879-Bilbao, 1953), que en 1905, tres años después de acabar sus estudios y mientras trabaja como meritorio y ayudante de Severino de Achúcarro en el Ayuntamiento, recibe el encargo de realizar los proyectos municipales de dos lavaderos y el edificio de la nueva alhóndiga.

Bastida viaja comisionado por varias ciudades europeas como Bruselas, Bremen, Amberes o Hamburgo con objeto de conocer de primera mano los avances más recientes en equipamientos similares. Y esta visión real y directa del funcionamiento de unas arquitecturas que, a medio camino entre lo residencial y lo fabril, han de albergar actividades, equipos y maquinarias útiles dirigidas al bienestar ciudadano, marcará al arquitecto de un modo que será apreciable en toda su obra de carácter público.

Gainera, hiriaren gaineko hirigintza ikuspegia du Bastidak, zeren Guimon lankidearekin batera hartu baitzuen parte udalak 1904an deituriko lehiaketan, hain zuzen ere Alzola, Achúcarro eta Hoffmeyer-en hemeretzigarren mendeko zabalgunea handitzeko. Bigarren saria eskuratu zuen. Bi zabalguneen arteko mugetan, orduan eraikuntza gutxiko aldean (Indautxu) erabaki zen eraikina kokatzea, hiri-bilbe-ko 100 x 88 metroko etxadi ia angeluzuzena hartu behar zuten eraikina, hots, 8.800 metro koadroko azalera.

Zein oinarri izan zituen proiektuari ekiteko? Hobere-na memorian bertan idatzita dagoen horretara jotzea da: «Alondegi berriaren neurri handiak eta zabalguneko toki-rik onenetako batean duen kokapena dela-eta, monumen-tuaren kanpoko itxurari buruzko azterlan zehatza merezi zuen. Zelanbait merkataritza eraikinaren izaera alde batera utzi barik, erakargarritasunen bat gehiago eskaini behar zuten fatxadetan hiribilduko kanpoko aldeetan eraiki zite-keen biltegi hutsak baino» (LÓPEZ, 1983, 24). Fatxada luzeen konposizioa benetako erronka zen Bastidarentzat, baina maisutasunez egin zuen lana, baoen arteko erritmo batera-tua ezarrita, soilik sarrerek eta angeluetan kokaturiko bost dorreek eteten zuten erritmoa. Bao horiek itxura serioa, zorrotza eta dotorea ematen zioten eraikinari. Eraikuntzan gehienbat material hauek erabili ziren: harria zokaloetan eta adreilua eta harri artifiziala (batzuetan lore-motiboekin moldeatua) gainerako fatxadetan. Sarrerako burdinurtuko zutabeetan eta beheko solairuko leihoetako burdinerian ageri da burdina.

Posee además Bastida una visión urbanística de la ciudad, ya que participa junto con su colega Guimón en el concurso que en 1904 convoca el Ayuntamiento para la ampliación del Ensanche decimonónico de Alzola, Achúcarro y Hoffmeyer, consiguiendo el segundo premio. Es en los límites entre ambos ensanches, en una zona aún escasa de construcciones, Indautxu, donde se decide ubicar el edificio que habrá de ocupar una manzana casi rectangular de la trama urbana de 100 x 88 m, es decir, de 8.800 m² de superficie.

¿Bajo qué premisas se enfrenta al proyecto? Nada mejor que acudir a lo escrito en la propia memoria: «Dadas las considerables dimensiones de la nueva Alhóndiga y su emplazamiento en uno de los mejores puntos del Ensanche, mereció un estudio detenido el aspecto exterior de este monumento, que sin perder el carácter de edificio mercantil por decirlo así, ha de ofrecer en sus fachadas algún atractivo más que el de un simple almacén como pudiera construirse en las afueras de la villa» (LÓPEZ, 1983, 24). La composición de las largas fachadas constituía un auténtico reto que Bastida resuelve con maestría, estableciendo un ritmo uniforme de huecos, sólo interrumpido por los accesos y por las cinco torres situadas en los ángulos, que dotan al edificio de un aire solemne, severo y elegante. Los materiales utilizados en la construcción son la piedra en los zócalos y el ladrillo y la piedra artificial, en ocasiones moldeada con motivos florales, en el resto de las fachadas. El hierro está presente en las columnas de fundición de los accesos y en la herrería de las ventanas de la planta baja.



Alondegia, eraiki berria, garai hartako postal batean. (Joaquín Cárcamo bilduma)

La alhóndiga, recién construida, en una postal de época. (Colección Joaquín Cárcamo)



Fatxadei bakarrik ez, lehen egitura-hormarteari ere eman zitzaion kultur babesa. (Santi Yaniz)

Además de a las fachadas, se otorgó protección cultural a la primera cruja estructural. (Santi Yaniz)

Lengoaiari dagokionez, aipaturiko bi ikuztegieta Barzelonako urteetan ikasitakora joera izan zuen, non Domenech-en eta sezesionismoaren ukituren bat zuen modernismo katalanaren presentzia ikus daitekeen (BASURTO, 1991, 19). Alondegian, berriz, nolabaiteko historizismoa airtortzen du zenbait adituk, Basurtok berak adibidez, kupuladun dorreetan eta almenadun akaberan. Beste adi batzuek, ostera, eklektizismo modernista deritzon horretan kokatzen dute, Chueca Goitikak adibidez; eta beste batzuek, azkenik, alde batez Fullaondoren arrazoibideen haritik (haren ustetan, alondegia arkitektoaren lanik onena da), Bilboko «Art Nouveau»ren instalaziorik duinetako bat dela diote inolako zalantza barik (ESPARTA ETA LÁZARO, 1983, 73).

Hala ere, orain arte idatzitako guztia gorabehera, alondegiak duen garrantzitsuena ez dago ikusgai, barruan ezkutatuturik baino, bere lanen funtzionaltasunagatik arkitektoak zuen etengabeko obsesioa dela-eta: «Proiektuaren memorian harrigarria da zein kezka duen langileei lana errazteko» (FORASTER, 2002, 69). Zutabepeko areto handien oinplanoko banaketa, patio luzangen argiztapen zenitala, kaleen arteko desnibelen aprobetxamendu funtzionala, hamar metro zabalako barneko kale zabalak edo jarritako zortzi igogailu hidraulikoak: lana antolatzeko kezkarri eta proiektuetako gune berrietan aurrerapen teknikoak sartzeari erantzuna ematekoak dira guztiak.

Con respecto al lenguaje, si en los dos lavaderos mencionados se había inclinado por el aprendido en sus años de formación barcelonesa detectándose la presencia de Doménech y del modernismo catalán con alguna nota secesionista (BASURTO, 1991, 19), en la Alhóndiga, sin embargo, algunos autores como la propia Basurto reconocen cierto historicismo en la formalización de las torres cupuladas y el remate almenado; otros, como Chueca Goitia, lo encajan dentro de lo que éste llama eclecticismo modernista; y otros, en fin, siguiendo en parte los razonamientos de Fullaondo, quien afirmaba que la Alhóndiga era la mejor obra del autor; no dudan en considerarla como una de las más dignas instalaciones del «Art Nouveau» en Bilbao (ESPARTA; LÁZARO, 1983, 73)

Y sin embargo, pese a todo lo escrito hasta ahora, lo más importante de la Alhóndiga no se encuentra a la vista sino oculto en su interior y remite a la permanente obsesión del arquitecto por la funcionalidad de sus obras: «De la memoria del proyecto sorprende la preocupación por facilitar el trabajo a los operarios» (FORASTER, 2002, 69). La distribución en planta de las grandes salas hipóstilas, la iluminación cenital de los dos patios alargados, el aprovechamiento funcional de los desniveles entre calles, las amplias calles interiores de 10 m de anchura o los ocho ascensores hidráulicos instalados, responden a esta preocupación por la organización del trabajo y la incorporación de los adelantos técnicos en los nuevos espacios proyectados.

Baina batez ere hormigoi armatua aukeratzea da Bastidak modernitatearen alde egiten duen apustuaren sinboloa, hain zuzen konponbide estrukturala emateko, lehenbizi aipaturiko bi ikuztegietan eta ondoren ardoen biltegian. Ricardo Bastidak hormigoi armatuzko egitura proposatu zuen, seguru asko Europan zehar eginiko bidaiak ikusita-koaren eraginez, edo beharbada Bilbon La Ceres lantegia 1899an eraiki zenetik izan ziren esperientzietan arreta jarrita, edo finkatu nahian zebiltzan eta teknologia berrietan espezializatuta zeuden enpresek bultzatuta. Sestaoko enpresa lehiatsu batek, José Eugenio Ribera bideetako ingeniari ezagunaren eraikuntza enpresarekin eta Bilboko «Arizabalaga, Zubinas y Cía» enpresarekin lehia gogorrean, obraren esleipena jaso zuen, 840.000 pta.ko eskaintzarekin. Egiturako obrak Enrique Colás Arias (Madril, 1869-Gasteiz, 1939) bideetako ingeniariak zuzendu zituen, «Compañía Anónima del Hormigón Armado de Sestao» sozietateko zuzendari teknikoak –izen komertzial hori zuen enpresak–, eta obrak hasi eta denbora laburrera, «Société Générale des Ciments Portland de Sestao» sozietateak kideak xurgatu zuen, eta lanez arduratu zen.

Ez zen erabaki erraza izango, ordea: 1905eko apirilaren zortzian, eraikitzen ari zela, Madrilgo «Canal de Isabel II»ko hirugarren biltegi hormigoi armatuaren gainaldeko zati bat behera etorri zen. Langile ugariaren heriotza ez ezik, gainaldea behera etortzearekin batera, eraikuntzako material berrian hasita zegoen konfiantzak ere behera jo zuen; izan ere, hamar urte eskas zeramatzan herrialde garatuetan finkatzen material horrek.

Bilboko udal alondegia egitura ordura arte Espainian hormigoi armatuarekin eginiko eraikinik handiena zen, eta Sestaoko enpresak eraiki zuen handiena. 900 tona altzairu eta 2.100 tona porlan erabili ziren, eta 200 langile aritu ziren lanean; solairuak –sotoa, beheko solairua eta beste bi gehiago– gainkargako metro koadroko 1.400 kilori eusteko kalkulatu ziren; zutabeak, kaleetan eta aireztapen patioetan, lau bider lauko bilbe ortogonal baten zeuden sartuta,

Pero, sobre todo, si algo simboliza el abrazo de Bastida a la modernidad es la adopción del hormigón armado como solución estructural primero en los dos lavaderos mencionados y a continuación en el almacén de vinos. Ricardo Bastida, posiblemente influido por lo visto en su viaje por Europa o, tal vez, atento a las experiencias que desde la construcción de la fábrica de La Ceres en 1899 se iban acumulando en Bilbao, o incluso alentado por las empresas especializadas en la nueva tecnología que trataban de consolidarse, propone que la estructura sea de hormigón armado, y una pujante empresa de Sestao, en dura competencia con la Compañía de Construcciones del conocido ingeniero de caminos José Eugenio Ribera y con la también bilbaína Arrizabalaga, Zubinas y Cía., se adjudica la obra con una oferta de 840.000 pesetas. Las obras de la estructura las dirige el ingeniero de caminos Enrique Colás Arias (Madrid 1869-Vitoria, 1939) director técnico de la Compañía Anónima del Hormigón Armado de Sestao –ésta era su denominación comercial– que a los pocos meses de iniciadas las obras es absorbida por su hermana la Société Générale des Ciments Portland de Sestao, que se hace cargo de las mismas.

La decisión, sin embargo, no tuvo que ser nada fácil: el día 8 de abril de 1905, mientras se estaba construyendo, se había hundido parte de la cubierta de hormigón armado del tercer depósito del Canal de Isabel II en Madrid, desastre que no sólo causó la muerte de numerosos trabajadores; con la cubierta se derrumbaba también la incipiente confianza en el nuevo material de construcción que desde hacía algo menos de una década se estaba consolidando en los países desarrollados.

La estructura de la Alhóndiga Municipal de Bilbao fue la mayor edificación realizada hasta esa fecha en España en hormigón armado y la mayor que la empresa de Sestao llegó a construir. Consumió 900 t de acero y 2.100 de cemento y llegó a emplear a 200 trabajadores; las plantas –sótano, baja y dos más– se calcularon para 1.400 kg por m² de sobrecarga; los pilares, excepto en calles y patios de ventilación se inscribían en una trama ortogonal de 4 x 4 m



Alondegia obretan. Argazkian, sotoaren egituraren lanak aurreratuak eta beheko solairuaren aurrealdeko ekialdea hasieran. (*Hormigoi armatua*, 1907. Joaquín Carcamoaren biduma)

La Alhóndiga en obras. En la foto, la estructura del sótano en estado avanzado y el levante de las fachadas de planta baja en sus inicios. (*El hormigón Armado*, 1907. Colección Joaquín Cárcamo)

eta aire-ganbera bikoitzeko forjatu batekin egin zen gainaldea. Zimenduak jartzeko ahalegin gehiago egin behar izan ziren, obretan aldaketak egin eta aurreikusi gabeko bost metro sakonerako 200 pilote edo paldo eraiki behar izan ziren zenbait aldetan. Eta ikuspegi kontzeptualaren aldetik garrantzitsuena falta da aipatzea: Bastidak errotiko baldintza sartu zuen lehiaketako oinarrietan: «hormigoi armatua halako modez jarriko zen, non harresi horien euskarriak ezertarako ere ez baitziren izango: hormigoi armatuko zutabeek eta habeek eutsi behar zioten solairu bakoitzean, eta fatxada guztiek izan behar zuten hormigoi armatua». (La Alhóndiga Central de Bilbao, 1907, 422). Funtzio estrukturalako karga daramaten harresiak barik itxierako azalak baino ez ziren izango. Baina ezin antzeman daiteke eraikuntza sendoarean kanpotik begiratze hutsarekin. Colasen enpresak harri artifiziala fabrikatzeko ardura ere izan zuen. Material hori pixkanaka ari zen nagusitzen bai ingeniarietan –Ribera erabilia zuen Donostian eraiki berria zen María Cristina zubian– bai arkitekturen.

1909an ireki zenetik 1966an udal alondegi gisa itxi eta 1976-77an behin betiko itxi zen arte biltegiatze-lanen jardura pribatua Gaztelondo eraikin berrira aldatu zela-eta, alondegiak etengabe eman izan ziren zerbitzua bilbotarrei, 1919ko sutean izan ezik. Harrezkero, bost proiektu egin dira eraikin horretan kokatzeko.

Francoren erregimenaren azken urteetan, udala lehen aldiz saiatu zen eraikina botatzen espekulazioan aritzeko, baina geldiarazi egin zen herritarren eta profesionalen presioaren eraginez. Udalak, 1988an, beste eraiste-espeditente bat hasi zuen, eta lurra husteari ekin zitzaion aparkalekia egiteko, baina bertan behera gelditu zen Eusko Jaurlearitza-ren Kultura Sailak esku hartuta. 1989ko urtarrian kultur ondasunaren kalifikazioa emateko espeditentea egin zuen (EHAA, 1989/02/09). Urte bereko maiatzean, Saenz de Oiza eta Fullaondo arkitektoen eta Oteiza eskultorearen kultura etxea izateko proposamena aurkeztu zen: eraikina guztiz eraistea planteatzen zuten, fatxadetako bat izan ezik; proposamenak berriz ere piztu zuen sektore profesionalen eta herritarren kontrako iritzia, eta eztabaida handia izan zen (La Alhóndiga de Bilbao..., 1989, 6-7). Handik gutxira, biltegi zaharra Guggenheim fundazioari eskaini zitzaion museo berriaren balizko kokapena izan zedin.

Udalaren beste ekimen bat berriz ere saiatu zen laurogeita hamarrekordialdean kirol ekipamendua hiru fasetan altxatzen, 600 aparkaleku eta 9.000 lagunentzako pabiloia barne. Ekimenak atzera jaso zuen sektore kulturalen eta profesionalen ezetza. Eusko Jaurlearitza-ren Kultura Sailak, 1998ko urrian (EHAA, 1998/10/13), kalifikazio-espeditentea jendaurrean jartzeko epealdia hasi zuen, eta monumentu izendatzeko adierazpenarekin bukatu zen, hain zuen abenduaren 22ko 397/1998 Dekretuaren bidez (EHAA, 1999/01/20). Fatxadak eta egiturako lehen hormartea atxiki ziren; jarduketa berrien goiko kota zehaztu eta kanpoko babes inguru bat zedarritu zen alboko kaleetako ardatzeraino.

y la cubierta se proyectó con un forjado doble con cámara de aire. Requirió un esfuerzo adicional la cimentación, pues hubo que introducir cambios durante las obras y ejecutar 200 pilotes no previstos, de 5 m de profundidad, en algunas zonas. Y, lo más importante desde el punto de vista conceptual, Bastida incluyó en las bases del concurso una condición radical, «que el hormigón armado se dispusiera de tal manera que no se contase para nada con el apoyo de estos muros sino que cada muro en cada piso estuviera sostenido por las vigas y pilares de hormigón armado de que se debían dotar las fachadas» (La Alhóndiga Central de Bilbao, 1907, 422). Las fachadas dejan de ser muros de carga portantes con función estructural y pasan a ser meras pieles de cerramiento. Imposible apreciarlo desde la mera contemplación exterior de la sólida edificación. La empresa de Colás se hizo cargo también de la fabricación de la piedra artificial que poco a poco iba imponiéndose tanto en ingeniería –Ribera la había adoptado en el recién construido puente donostiarra de María Cristina– como en arquitectura.

Desde su apertura en 1909 hasta su clausura como Alhóndiga Municipal en 1966 y su cierre definitivo en 1976-77 por traslado de la actividad privada de almacenamiento al nuevo edificio de Gaztelondo, la Alhóndiga ha prestado servicio ininterrumpido a los bilbaínos con la única excepción del incendio sufrido en 1919. Desde entonces hasta hoy, cinco proyectos han tratado de abrirse hueco en el lugar.

En los últimos años del régimen de Franco hay un primer intento del Ayuntamiento de derribar el edificio con fines especulativos, que logra frenarse gracias a la oposición popular y profesional. En 1988 el Ayuntamiento inicia de nuevo un expediente de demolición y vaciado de tierras para la construcción de un aparcamiento que queda paralizado por la acción del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, que en enero de 1989 incoa expediente para su calificación como Bien Cultural (BOPV 9/02/1989). En mayo de ese año se presenta la propuesta de Centro Cultural de los arquitectos Sáenz de Oiza y Fullaondo y el escultor Oteiza, que plantean el derribo total del edificio a excepción de una de las fachadas; la propuesta recibe de nuevo la contestación de sectores profesionales y ciudadanos dando lugar a una intensa polémica (La Alhóndiga de Bilbao..., 1989, 6-7). Poco más tarde el viejo almacén es ofrecido a la fundación Guggenheim como posible ubicación de su nuevo museo.

De nuevo a mediados de los noventa otra iniciativa municipal trata de levantar un equipamiento deportivo en tres fases, que incluye un aparcamiento de 600 plazas y un pabellón para 9.000 personas. La iniciativa es nuevamente contestada por sectores culturales y profesionales. En octubre de 1998 (BOPV 13/10/1998) el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco abre un período de información pública del expediente de calificación que finaliza con la declaración como monumento por Decreto 397/1998 de 22 de diciembre (BOPV 20/01/1999) preservando las fachadas y la primera crujía de la estructura, definiendo la cota superior de las nuevas intervenciones y delimitando un entorno de protección exterior hasta el eje de las calles adyacentes.

Udalak, 2000an, behin betiko baztertu zuen kirol zentroa egiteko asmoa, eta aisialdi, kultura eta kirolerako kudeaketa publiko pribatuko konplexu baten aldeko apustua egin zuen. Burutzapen-proiektua idazteko laguntza teknikorako kontratazioa atera zuen lehiaketara, baita alondegiko faseetako obren zuzendaritza ere. Lehiaketa MECSA-Ove Arup ABEB enpresari esleitu zitzaion. 2001 eta 2004 bitartean, José Luis Burgos arkitektoaren proiektuarekin, goiko egitura eraisteko lanak eta bost sotoak induskatzeko eta burutzeko lanak egin ziren. Aparkalekua 2004an inauguratu zen, eta ondoren, fatxadak zaharberritu ziren 2005. urtean.

Bilboko Udalak, 2004an, Starck diseinatzailea kontratu zuen, eta lau zatitan banatu zuen barneko gunea. Horietako hiruk eraikina definitzen duten ardatzekiko eraikin-kubo biratua hartzen dute, eta halako moldez daude bermatuta habeetan non beheko solairua salbuetsita uzten den; laugarren gunea hutsik gelditzen da sarrerako atari gisa, eta soilik gurutze-formako metalezko 15 zutabek zeharkatuta dago. Starck-en jarduketak egokia edo ez izan zen juzgatu barik, soilik ondare ikuspegitik esan daiteke Bastidaren eraikinaren erabateko horizontaltasun monumentalak desitxuraturata gelditzen dela altueran gehitutako bolumenekin; mugarri-dorreak eta almenadun akaberak ere irensten ditu. Barnealdean, tokiaren espiritua erabat galdu da; zutabepeko gune handiaren irudipena eta laukiaren egokitasun eta ortogonal izateari buruzko erreferentzia galtzen dira. Azkenik, hormigoizko lehen hormartea beirazko pantaila neutro baten atzean ezkutaturik gelditzen da, neurri handi batean zaindu bada ere. Dena den, esan beharra dago alondegia- ren silarri bat bera ere ez litzatekeela geldituko hasierako proiektuetako edozein burutu izan balitz. *Hó* deritzon konplexua 2010ean inauguratuko da aurreikuspenen arabera.

BIBLIOGRAFIA

BASURTO, N., 1991, 7-41 • CAPITEL, A., 1983, 57-68 • ESPARTA, J. M.; LÁZARO, C., 1983, 69-86 • FORASTER, J. R., 2002, 52-89 • *La Alhóndiga Central...*, 1907 • *La Alhóndiga de Bilbao...*, 1989 • *Las obras de la Alhóndiga Central...*, 1907 • LÓPEZ, A., 1983, 21-44 • MOYA, A., 1983, 45-56.

En 2000, el Ayuntamiento desecha definitivamente la idea de levantar un centro deportivo y apuesta por un complejo de gestión público-privada dedicado al ocio, la cultura y el deporte. Saca a concurso la contratación de la asistencia técnica para la redacción del proyecto de ejecución así como la dirección de obra en las diferentes fases de la Alhóndiga, concurso que se adjudica a la UTE MECSA-Ove Arup. Entre 2001 y 2004, bajo proyecto del arquitecto José Luis Burgos, se realiza la demolición de la estructura interior, la excavación y la ejecución de los cinco sótanos, inaugurándose el aparcamiento en 2004 y procediéndose a continuación, en 2005, a la restauración de las fachadas.

En 2004 el Ayuntamiento de Bilbao contrata al diseñador Philippe Starck, quien divide el espacio interior en cuatro partes, tres de las cuales acogen cada una un edificio-cubo girado respecto a los ejes que definen el edificio y apoyado sobre pilares de forma que dejan exenta la planta baja; el cuarto espacio queda vacío como atrio de acceso atravesado tan sólo por 15 columnas metálicas cruciformes. Sin entrar a juzgar aquí el acierto o desacierto de la intervención de Starck, desde un punto de vista estrictamente patrimonial cabe decir que la rotunda y monumental horizontalidad del edificio de Bastida parece quedar desdibujada con los volúmenes añadidos en altura, que engullen también los torreones-hito y los remates almenados. En el interior el espíritu del lugar se ha desvanecido; se pierde la percepción del gran espacio hipóstilo y la referencia a la ortogonalidad y racionalidad de la cuadrícula; por último, la primera cruja de hormigón, pese a haberse conservado en gran parte, queda oculta tras una neutra pantalla de vidrio. Aunque también se debe dejar constancia de que hoy ni un sillar de la Alhóndiga quedaría en pie si cualquiera de los primeros proyectos hubiera sido llevado hasta sus últimas consecuencias. El complejo, denominado *Hó*, fue inaugurado en mayo de 2010.

BIBLIOGRAFÍA

BASURTO, N., 1991, 7-41 • CAPITEL, A., 1983, 57-68 • ESPARTA, J. M.; LÁZARO, C., 1983, 69-86 • FORASTER, J. R., 2002, 52-89 • *La Alhóndiga Central...*, 1907 • *La Alhóndiga de Bilbao...*, 1989 • *Las obras de la Alhóndiga Central...*, 1907 • LÓPEZ, A., 1983, 21-44 • MOYA, A., 1983, 45-56.